

telebista ♦ irratia

Irulegiko Irratia osagarri onean dela agertu da biltzar nagusian

Geroari begira toki handiago baten ukaitea premiazkoa dela iragarri dute

Eneko Bidegain / Donibane-Garazi

**Irulegiko irratiko kide eta laguntzaileek biltzar nagusia izan dute. 1998aren bilana egin dute eta oro har irratia-
ren egoeraz baikor ager-
tu dira. Geroari begira,
laster egoitza handiago
baten beharra izanen
dute, langile kopurua
emendatzen ari baita.**

SEINALE ona da Irulegiko Irratiak orain duen egoitza ttipiegi izatea. Alabainan, gaur egun bederatzi langilek segurtatzen dute irratia-
ren programazioa, haiei
gehitzen zaizkien hamar-
naka laguntzaileak ahan-
tzi gabe. Horrek eragiten duen
dinamikaren ondorioz, las-
ter toki handiago baten
aurkitzeko premian dira.
Emankizunen kalitatearen
hobetzea ere irratilarien
erronketarik bat da, eta az-
ken urteko eta urteetako
bilana egiterakoan, helbu-
ru hori betetzen dutela
erran daiteke. Bide horre-
tan oraino urrunago joaite-
ko, koordinatzaile bat har-
tu dute. Horri gehitu behar
zaio Euskal Irratia (Gure
Irratia, Xiberoko Botza eta
Irulegiko Irratiaren arteko
sarea) gero eta gehiago egi-
tutatzen ari dela, eta honek
ere berriki koordinatzaile
bat hartu duela elkarlana-
ren kudeatzeko.



Azken denboretan Euskal Irratien entzulegoa bikoiztu egin da: hiruek batera 15.000 entzulez gora dute.

Azken denboretan Euskal Irratien entzulegoa bikoiztu dela azpimarratu dute. Media Metrie neurketa siste-
maren bidez badakite hiru
irratiek elgarrekin 15.000
entzulez gora badutela.
Emaizta hori emankizunen
hobekuntzaren froga bat da.
Gainera, estatutik irratil-
libreek ukaiten dituzten
diru laguntzetan, Irulegiko
Irratiak bonifikazio bat ukan
du. Bonifikazio horren ema-
teko hainbat irizpide kon-
tuan hartzen dira, baina
laburbilduz, frantses esta-
tuko irratiliberik landuenei
ematen zaie, sailkapen bati
jarraituz. Bonifikazioaren

heina sailkapenaren arabe-
rakoa da. Gure Irratiak eta
Xiberoko Botzak ere bonifi-
kazio bat lortzen dute, apa-
lagoa baldin bada ere.

Irulegiko Irratia irratia di-
namikoa eta kolorez betea
dela erakusten duen beste
froga bat da laguntzaileetan
gero eta gazte gehiago dagoe-
la. Eta Menane Oxandaba-
ratz irratiko lehendakariak
EGUNKARIARI esan dionez ho-
rretaz ere asko pozten dira.

Helburu teknikoak ere ba-
dituzte. Euskal irratien ara-
zo handienetarik bat da zen-
bait lekutan ez dela ongi en-
tzuten. Horren konpontzeko
errepikagailuak ezartzen di-

tuzte, bainan baimenen
ukaitea biziki luze da eta ez
dituzte beti ukaiten. Iaz erre-
fusatua izan zen. Orain fin-
katu duten lehentasuna da
igorgailu nagusiaren indarra
handitzea. Horrela itzalgu-
neak ez badituzte betetzen,
errepikagailua ezarriko dute
Oztibarreko gunearentzat.

Bestalde, laguntzen alde-
tik, iaz irratia Kontseilu
Nagusitik 40.000 libera bai-
zik ez zituen ukan, ontsalaz
80.000 behar dituelarik.
Baxe Nafarroako 105 herri-
ko etxek sustengua agertu
zioten irratia eta aurten
diru laguntza berriz 80.000
liberara itzuli da.

laburrean

Sabino Arana sariak 'CQC'-n

Urtarrilaren 31ko Sabino Arana Sarien banaketa ekitaldia izango da gai nagusia gaurko *Caiga Quien Caiga* saioan, Tele5n. Gran Wyomingek zuzentzen duen saioan, 15:15etatik aurrera, ekitaldira joan ziren politika, kultur, kirol eta gizarte esparruko zenbait pertsonaiari egindako elkarrizketak ikusi ahal izango dira. Besteak beste, Tonino kazetariaren eskuetatik igaro ziren Xabier Arzallus, Juan Jose Ibarretxe, Juan Maria Atutxa, Iñaki Anasagasti, Miguel Herrero de Miñon, Jose Luis Ansorena, Jon Bagües, Selma Huxley, Jose Angel Iribar, Luis Arkonada, Ando-

ni Zubizarreta, Dumisa Buhle Ntsebeza eta Jose Antonio Ardanza. Gaurko erre-
portaian ez da gatzik faltako eta elka-
rriizketatuek euren trebetasuna agerian
utzi dute Tele5ko lantaldearen aurre-
an.

Udal Ordezkarien Biltzarra aztergai 'Gau: ON' saioan

Euskal Herriko Udal Ordezkarien Bil-
tzarra osatzeko deiak sortu duen pole-
mika aztergai izango da bihar ETB-
lean emitituko den *Gau: ON* saioan.
Maddalen Iriartek gidatzen duen ezta-
baidan EAJ, EH eta EAKo ordezkariek,
hau da, Euskal Herriko Udal Ordezka-

rien Biltzarra deitu duten alderdi nugu-
sietako ordezkariek eta biltzar horren
aurka agertu diren PSE, PSF, CDN eta
IU-EBko hautetsiak izango dira.

Hasier Etxeberria 'Bertatik Bertara' saioan izango da bihar

Biharko *Bertatik Bertara* saioan suka-
daritzaz hitz egingo dute. Hasier Etxe-
berria ETBko kazetari eta idazlearekin
batera solasean arituko da Andoni Aiz-
puru. Izan ere, Etxeberriak *Erabateko
sukaldari* izenburuko liburua argitara
eman du Luis Irizar sukaldariarekin eta
Julian Bereziartua sendagilearekin
batera.

aditza badut ♦
Xabier Lasa

Kortesia

Atxagarentzat kortesia •

Ostiral goizeko zortzietan albisteen bonbardeo ito-
garria jasan nahi ez due-
narentzat alternatiba la-
saigarria da Bernardoren
bakarrizketa, Herri Irra-
tarian. Aldika, berea egu-
neko albistegi oro baino
hausnararrazleagoa egi-
ten da. Gertatzen da,
noizbehinka ere ez gatz
ez piper ez duen erretori-
kan erortzen dela, bat in-
diferente uzteko lain. Be-
re doinuaren bat-bateko-
tasunak eta goxotasunak
nekez ezkuta dezake ga-
bezia hori. Hala denean
hitz-jarioa airoski irten
daiteke, agian ez esan de-
nagatik, nork esan due-
nagatik baizik. Izen kont-
sagratuaren pribilegioak
izango. Herenegungo go-
goetak kazetariak gonbi-
datuekiko sarri duten
kortesia eza zuen jopun-
tua. Kazetari ezezagun
batek berari asteasuara
edo Bernardo deitzeak
amorrarazten du, eguno-
tan Zenarruzabeitiari «ez
zaitez horren lotsati izan»
bota izanak bezainbat.
Tratamendu progrea ez
baizik lehengo falangis-
ten konfiantza dakarkio
burura.

Salako Lehioa •

Gutxi-
dute Jon Aizpurua eta
Mari Karmen Odriozola-
ren kortesia eta diploma-
zia. Bikotearen iparra,
bazkalberriaren liserike-
ta leunduko duen har-
monia adeitsuan nekaza-
ri giroa eta modernitatea
tartekatzean datza. An-
tton Aranburuk ostegu-
nero eratu ohi dien tertu-
liara Manu Urbieta eta
Amaia Zubiria bildu zi-
ren, Santa Agedaren in-
guruan. Solasaren er-
dian, Artean santaeske-
an aspalditik dabilen
Juantxo Larrazabali hots
egin, eta ale hop!, hor
non deskubritu genuen
euskal axolagabekeria-
ren harribitxi bat: artea-
rrak buruz dakizkien 70
koplak jasogabeak dira.
Antton -inoiz ez bezain
bizi- eta Amaia ahozko
tradizioaren berreskura-
tzaileen rolean sartu, eta
arin jarri zuten hitzordua
Artean, grabagailuaz ar-
maturik joatekotan.